

---

LAN  
HARREMANEN  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
RELACIONES  
LABORALES



---

# JARDUEREN MEMORIA

**2023**

# AURKIBIDEA

## AURKEZPENA

1. BARNE-ANTOLAKETA ETA OSAERA
2. OSOKO BILKURAREN ETA BATZORDEEN JARDUERA
3. KONTSULTA-JARDUERA
4. ERAKUNDEAREN JARDUERA
5. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA ETA KONTSEILUAREN FORMAKUNTZA-PLANA
6. LAN-HARREMANEN ZERBITZU INTEGRAL BATERANTZ
7. PRECO, GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURAK
8. ESTATUTUAREN ARABERAKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK EZ APLIKATZEKO PROZEDURAK EBAZTEKO ORGANOA-ORPRICGE
9. AZTERLANAK ETA ARGITALPENAK
10. AURREKONTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

## AURKEZPENA

Euskadiko Lan Harremanen Kontseilua ordezkaritza handieneko euskal gizarte-eragileen arteko topagune eta elkarrizketarako organo iraunkorra izateko sortu zen. Bi aldeko elkarrizketa hori da Euskadiko lan-harremanak autonomia kolektibotik gobernatzea ahalbidetzen duen bidea.

Bi mila eta hogeita hiru urtea LHKren barne-historian grabatuta geratuko da, akordioak benetan berreskuratu ziren urte gisa. Nire aurrekoak kargu honetan, Tomás Arrietak, duela bi urte azpimarratu zuen negoziazio kolektiboa berehala sustatu behar zela, nahiko blokeatuta zegoen une horretan, formulak bilatuz aldi berean bi helburu lortzeko: batetik, epe ertaineko errenten erosahaltenari eustea, eta bestetik, arriskua kontrolatzea, prezioen translazio mekaniko bat enpresen soldata eta marjinetara inflazio espirala elikatuko lukeen faktore gehigarri bihur ez dadin.

Bada, esan genezake 2023an negoziazio kolektiboak izan duen garapenaren ondorioz, urtea amaitzean, EAEko soldatapekoen % 63,8k eguneratuta zeuzkala hitzarmenak (erabateko indarraldia), % 30,6k luzapen-egoeran zeuzkala eta % 5,6k baino ez zeuzkala bere hitzarmenak iraungita eta estaldurarik gabe.

Informazio hori guztia xehetasun osoz jasotzen da orain aurkeztu ari garen 2023ko Jardueren Memorian; lan honen jatorria da gizarteak gure lana egiteko esleitzen dizkigun bitarteko eta baliabideen erabilerari buruzko kontuak emateko asmoa. Izan ere, lan hori hainbat eremu eta arlotan gauzatu da, orri hauetan ikusiko den bezala.

Lehenik eta behin, gure egoitzetan gero eta gehiago biltzen dira hitzarmen kolektiboen negoziazio-batzordeak —ia 90 hiru lurralde historikoetan—, eta, materialki eta teknikoki, EAEko soldatapekoen % 63 baino gehiagoren lan-baldintzak arautzen dituzten akordioak negoziatzeko, lantzeko eta sinatzeko lanari babesa ematen zaio gurean. Bigarrenik, edukien kudeaketa dinamikorako eratzen diren batzorde paritarioei harrera egin eta laguntza ematen zaie.

Horrekin batera, lan-gatazka kolektiboak modu autonomoan konpontzeko PRECO Lanbidearteko Akordioa kudeatzen jarraitzen du Lasn Harremanen Kontseiluak —645 prozedura hiru lurraldeetan azken urtean bakarrik—, 2014-2022 aldian aurkeztutako eskaeren batez bestekoa (544) baino bolumen dezente handiagoa. Ia laurden bati (% 24,7) irtenbide negoziatua eman zaie.

LHKren lana osatzeko, txostenak egiten dira eta denon eskura jartzen den ezagutza sortzen da; ezaguera zehatza eta osoa, gure webgunearen eta komunikabideen bidez zabaltzen duguna. Lan-tresna gisa erabil daiteke, ez bakarrik arlo sozio-laboralean adituak diren profesionalen eta pertsonen aldetik, baita gizarte-eragileen euren aldetik ere, diagnostikoak egiten eta proposamenak aberasten laguntzeko bitarteko gisa.

Bide batez, eskerrak ematen dizkiet egunero arlo horietako emaitzak hobetzeko profesionaltasunez eta arduraz lan egiten duten langileei. Eta aitortza berezia egin nahi diot nire aurretik kargu honetan zen pertsonari, Tomás Arrietari, ikusgarritasuna eta baliozko edukiak eman baitizkio Lan Harremanen Kontseilu honi.

**Emilia M. Málaga Pérez**  
Presidentea

## 1. BARNE-ANTOLAKETA ETA OSAERA

Lan Harremanen Kontseilua Euskal Autonomia Erkidegoaren organo bat da, eta irailaren 30eko 9/1981 Legearen bitartez sortu zen; nolahi ere, Lan Harremanen Kontseiluaren egungo erregulazioa ekainaren 23ko 4/2012 Legean jasota dago. Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren gai soziorabiarako kontsulta erakunde da, eta, hori ez ezik, sindikatuen eta enpresaburu konfederazioen arteko topaketa eta elkarrizketarako organo iraunkorra ere bada (ikus horri buruzko informazio gehiago Kontseiluaren webgunearen **EGITURA** atalean).

Kontseilua bitariko erakunde parekidea da, sindikatu-erakunde eta -konfederazioen ordezkari gisa diharduten zazpi kidez osatua, eta enpresa-konfederazioen ordezkari gisa diharduten beste zazpi kidez. Kontseiluaren azken berritze osoa 2023ko abenduaren 1ean amaitu zen. Egun horretan argitaratu eta ondorioak izan zituen Lan Harremanen Kontseiluko kideak kargutik kendu eta izendatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 14ko 32/2023 Dekretuak. Horren ondorioz, gaur egun, honela osatuta dago: CONFEBASK enpresaburuaren konfederazioak izendatutako zazpi kide eta ELA, LAB, CCOO eta UGT erakunde eta konfederazio sindikalek izendatutako zazpi kide (ikus **EGITURA** LHKren

webgunean). Presidentea eta idazkari nagusia ere Kontseiluko parte dira, baina ez dute botoa emateko eskubiderik.

2023ko azaroaren 6an, halaber, Kontseiluko presidentetza berritu zen, lehendakariaren bi dekretu EHAAn argitaratuta (28 eta 29/2023, urriaren 28koak). Dekretu horien bidez, Tomás Arrieta Heras kargutik kendu zen, bere agintaldia amaitu zelako, eta Emilia Montserrat Málaga Pérez izendatu zen Kontseiluko presidente.

### KONTSEILUKO LANGILEAK

2023. urtean, Lan Harremanen Kontseiluak honako langile hauek izan zituen: azterlan sozioekonomikoen arduradun bat, lan-harremanetako bi teknikari, administrazio-arloko buru bat, hizkuntza-normalkuntzako teknikari bat, negoziazio kolektiboaren arloko teknikari bat, arloko sei administrari eta laguntzaile orokor bat. Gainera, behin-behineko langile gisa, Precoren prozedurak kudeatzeko eta negoziazio kolektiboari laguntzeko hiru lurralde-arduradun Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

## 2. OSOKO BILKURAREN ETA BATZORDEEN JARDUERA

Lan Harremanen Kontseiluaren ohiko funtzionamendua Osoko Bilkuraren eta haren baitako Lan-batzordeen bitartez bideratzen da. Bada, 2023an organo horien funtzionamendua honakoa izan da:

**KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA:** Ohiko hiru bilera egin zituen 2023an. Apirilaren 27koan 2022ko jardueren memoria eta 2022ko ekitaldiko urteko kontuak onartu ziren; 2023ko martxoaren 31ko informazioa eman zen Aurrekontua betetzeari buruz; 2023ko Aurrekontuan aldaketa bat egitea baimendu zen, baita Arabako Industria Siderometalurgikoaren Hitzarmen Kolektiboaren Berdintasun Batzordearen eskaera ere: sektoreko berdintasun-diagnostikoa egiteko laguntza.

Ekainaren 29ko bileran 2022 urteko txosten soziorabiala onartu zen; aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuaren (EPE 2022) deialdiaren oinarri arautzaileak aldatu ziren, eta lanpostuen balorazioari, ordainsarien erregistroari eta auditoretzari buruzko formakuntza-ekintza bat ematea onartu zen.

Azkenik, abenduaren 21eko saioan, lehenbizi, Osoko Bilkura formalki eratu zen, kideak herritzeko prozesua amaituta, eta LHK-ko batzorde iraunkorretako (Prestakuntzakoa/Txostenetakoa) kideak izendatu ziren; 2023ko irailaren 30eko informazioa eman zen aurrekontua betetzeari buruz; eta, azkeneko, 2024rako Aurrekontua onartu zen.

Osoko Bilkurak ezohiko bilera ere egin zuen 2023ko urriaren 18an. Bileran, Kontseiluko presidentearen dedikazio- eta ordainsari-araubidea aldatu zen, eta presidentetza berriro aurreko entzunaldi-izapidea bideratu zen.

**PRESTAKUNTZA BATZORDEA:** Osoko Bilkuraren ohiko bilertan aztertu beharreko gaiak prestatu eta gai-zerrenda onartzeaz arduratzen da; bada, 2023an hirutan bildu zen: apirilaren 20an, ekainaren 20an eta abenduaren 14an.

**TXOSTENEN BATZORDEA:** Kontsulta-funtzioa du, Osoko Bilkurak hala eskuordetuta. 2023an, batzorde hau Memoriaren **KONTSULTA-JARDUERA** ataleko txosten-eskaerengatik bildu da.

### 3. KONTSULTA-JARDUERA

Kontseiluak duen kontsulta eginkizuna garatzeko organo delegatua Txostenen Batzordea da, hala ezartzen baita Lan Harremanen Kontseiluaren funtzionamenduaren Araudian, zeina Osoko Bilkuraren 2014ko urtarrilaren 7ko Akordioaren bidez onartu baitzen.

Batzordeko kide gehienak iritzi berekoak direnean, Kontseiluak irizpen bat ematen du. Bestela, iritzi desberdinak daudenean eta adostasunik lortu ezin denean, Batzordeko kideen iritzi desberdinak zehazten dituen txosten bat egiten da.

2023an, Txostenen Batzordeak ondoren zerrendatzen diren Dekretu- eta Agindu-proiektuen edukia-  
ren berri eman du:

- Euskal Autonomia Erkidegoko 2024 urterako Laneko Jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzen duen Dekretu-proiektua.
- Laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duen, horietan sartzeko prozedura ezartzen duen eta enpresen erregistroa ezartzen duen Dekretu-proiektua.
- Eusko Jaurlaritzako Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu Sailburuaren Agindu-proiektua, zeinak arauak ematen dituen 2023ko maiatzaren 28ko tokiko eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan parte hartu eta dagozkien ordainsariak jaso ditzaten.
- Eusko Jaurlaritzako Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu Sailburuaren Agindu-proiektua, zeinak arauak ematen dituen 2023ko uztailaren 23ko Gorte Nagusietarako hauteskundeetan parte hartu eta dagozkien ordainsariak jaso ditzaten.

—Euskal sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzeko Dekretu-proiektua.

—Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde-  
deen arloan indarrean dauden zenbait Dekretu eta Agindu aldatzen duen Dekretu-proiektua.

Gainera, Euskadiko Gardentasun Legearen Aurre-proiektua ere bidali zen, nahiz eta Txostenen Batzordeko kide guztiek erabaki zuten aipatutako Lege Aurre-proiektuan jasotako erregulazioak gainditu egiten zuela Kontseilu honen eskumen-eremua.

Emandako txosten eta irizpen guztien testu osoa LHKren webgunean kontsulta daiteke, **KONTSULTA-JARDUERA** atalean.

## 4. ERAKUNDEAREN JARDUERA

Hauek dira Lan Harremanen Kontseiluaren 2023ko jarduera instituzionalaren baitako ekitaldi nabarmenenak:

**Urtarrilaren 16an**, Iruñean egin zen Bitartekaritzaren Europako V. Astea, eta bertan Tomás Arrietak honako ponentzia aurkeztu zuen: «*La evolución de la mediación laboral en España. Su conexión progresiva con la negociación colectiva en el marco de los Acuerdos Interprofesionales de solución de conflictos: retos y perspectivas*».

**Urtarrilaren 19an**, lan-bitartekaritzako Erakunde Autonomoen Topaketa bat egin zen Sevillan, *Bitartekaritzaren Europako Eguna* ospatzeko. Kontseiluko idazkari nagusia bertan izan zen.

**Otsailaren 28an**, Gaztela eta Leongo Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak Jardunaldi berezia antolatu zuen bere Valladolideko egoitzan txostena aurkezteko honi buruz: «*El sistema de solución autónoma de conflictos laborales en Castilla y León*». Kontseiluko idazkari nagusia bertan izan zen.

**Martxoaren 16an**, Kontseiluko presidentek «*Modelo inclusivo de empresa*» izeneko hitzaldia eman zuen, Gasteizko Arizmendiarría Fundazioak eta Caritasek antolatutako jardunaldi baten barruan.

**Martxoaren 24an**, CCOOk antolatutako jardunaldi sindikal batean, LHK-ko presidentek honi buruz jardutako: «*Las reglas de estructura y de competencia en la negociación colectiva. El espacio autonómico*».

**Apirilaren 25ean**, Kontseiluko presidentek hitzaldia eman zuen Euskal Herriko Unibertsitateko

tateko Lan Harremanen Fakultatean, honi buruz: «*La dimensión conflictual de las relaciones laborales y las vías autónomas de solución de conflictos*».

**Maiatzaren 16an**, Tomás Arrieta Heras Kontseiluko presidentek UGT Euskadik antolatutako dibulgazio-jardunaldi batean parte hartu zuen Bilbon, gai honi buruz: «*Nuevas realidades del mercado de trabajo*». Bertan, hitzaldia eman zuen ponentzia honen baitan: «*Repercusión en el empleo de la reforma laboral de 2021 y la negociación colectiva como instrumento esencial*».

**Maiatzaren 19an**, LHK-ko presidentek eta idazkari nagusiak Deustuko Unibertsitateko ikasle talde bat hartu zuten Bizkaiko egoitzan, eta presidentek azalpen labur bat egin zuen LHK-k lan-harremanen dinamikan esku hartzeko dituen sistemei buruz.

**Ekainaren 7an**, Kontseiluko presidentea Eusko Legebiltzarreko Lan eta Enplegu Batzordean agertu zen, Legebiltzarreko Euskal Alderdi Abertzaleek eta Sozialistek Abertzaleak eta Euskal Sozialistak eskatuta, Enpleguaren Euskal Legearen proiektua (15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguari buruzkoa) Legebiltzarrean izapidetzeko prozeduraren barruan.

**Ekainaren 12an**, Kontseiluko presidentek eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde zuzendari Miren Elgarresta Larrabidek lankidetzahitzarmena sinatu zuten, enpresetako berdintasun-planen negoziazio-batzordeei laguntza eta babesa emateko proiektu pilotu bat abian jartzeko.

**Uztailaren 13an**, LHK-ko presidentek eta azterlanen zerbitzuko arduradunak «*2022ko EAEko egoera ekonomikoari eta lan-harremanei buruzko*

*txostena*» aurkeztu zuten Bilboko egoitzan emandako prentsaurrekoan.

**Irailaren 26an**, LHK-ko presidentek Ertabaida-foro batean hartu zuen parte, honi buruz: «*Balance y perspectivas de la negociación colectiva en Portugal y España*». Comisión Consultiva Nacional de Convenios Colectivos (CCNCC) delakoak antolatu zuen foroa, eta bertan izan ziren Lan Harremanen Kontseilu eta gatazkak ebazteko sistema autonomo guztiak.

**Urriaren 12an**, Jardunaldia antolatu zen SIMA Fundazioan CCOO sindikatuak. Gaia: «*El papel de los organismos autónomos de solución de conflictos como herramienta fundamental del diálogo social en las relaciones laborales*». LHK-ko presidentek mahai-inguru batean parte hartu zuen, José Manuel Gómez Muñoz Andaluziako Lan Harremanen Kontseiluko presidentarekin eta Manel Pérez Cobos Kataluniako Lan Auzitegiko zuzendariarekin batera.

**Urriaren 23an**, Deustuko Unibertsitatean antolatu ziren, 2019ko Oñatiko Deklarazioari bultzada emateko, «*Elkarrizketa soziala eta lan-politikak ituntzea aldaketa-tresna gisa*» III. jardunaldiak, Lan eta Enplegu Sailak eta Oñatiko Lege Soziologiako Institutuak antolatuta. LHK-ko presidentek mahaietako batean parte hartu zuen, eta gai hau izan zuen hizpide: «*Negoiazio kolektiboaren egungo egoera EAEan*».

**Azaroaren 10ean**, Bilbon egindako Enpleguari buruzko VI. Kongresuan, Tomás Arrieta Heras presidente ohiak mahai-ingurua moderatu zuen «Elkarrizketa sozialerako espazioa enplegu-politiketan» delako gaiaren inguruan.

**Azaroaren 15ean**, jardunaldi berezia antolatu zen «Andaluziako Lan Harremanen Kontseilua sortzeko Legearen 40. urteurrena» ospatzeko. Bertan izan ziren LHK-ko presidentea eta idazkari nagusia. Tomás Arrieta Heras presidente ohia ere bertan izan zen, mahai-inguru batean parte hartzeko, honi buruz: *«Lan Harremanen Kontseiluaren eta gatazkak kudeatzeko erakunde autonomoen zeregina negoziazio kolektiboa indartzeko eta garatzeko»*.

**Azaroaren 22an**, Lan eta Enplegu Sailak Tomás Arrieta Heras omentzeko eta hari aitortza publikoa egiteko ekitaldia antolatu zuen Bilbon, eta bertan izan ziren Kontseiluko presidente berria, idazkari nagusia eta erakundeko langileak.

**Azaroaren 30ean**, SIMA Fundazioak, CEOEk eta CEPYMEk Jardunaldia antolatu zuten Madrilen, gai honi buruz: *«El impulso de la solución autónoma de conflictos laborales en el marco del V Acuerdo para el Empleo y la Negociación Colectiva»*. Bertan izan ziren LHK-ko presidentea eta idazkari nagusia, Tomás Arrieta Heras presidente ohiarekin batera. Azken honek hitzaldia eman zuen *«Bitartekariaren profilari buruz»*.



## 5. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA ETA KONTSEILUAREN FORMAKUNTZA-PLANA

### EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

Duela lau urte, 2019ko ekitaldiaren amaieran, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa onartu zen, Elhuyar enpresarekin lankidetzan. Plan hori Eusko Jaurlaritzaren 2018-2022 aldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko VI. Plan Estrategikoaren barruan sartzen zen. Elhuyar Aholkularitzarekin egindako lankidetzak 2019-2023 urteetarako Kontseiluaren Plan Estrategikoa garatzea izan du helburu. 2023rako definitutako Kudeaketa Planean zenbait helburu ezarri ziren, eta horietako asko osorik bete dira, baina horietako batzuk osatzeke daude, eta, beraz, 2024an horiei ekiten saiatuko gara.

Aurreko memorietan nabarmendu den bezala, Euskara Batzorde bat dago Kontseiluan, eta 2023an bederatzi bilera egin ditu. Honako hauek osatzen dute organo hori: Elhuyar enpresako ordezkaria (koordinatzen du), idazkari nagusia, administrazio-arloko burua, lan-harremanetako teknikari bat, funtzionario administratibo bat eta LHK-ko hizkuntza-normalkuntzako teknikaria.

### 2023KO EKITALDIKO NEURRI NAGUSIAK

#### Neurketak

- Azaroan *euskararen ahozko erabilera neurtu da aurrez aurreko eta telefono bidezko arretan.*
- Urte osoan zehar, aplikatu beharreko hitzarmenari buruzko kontsultak neurtu dira: bai eskaerak, bai erantzunak. Eskabide gehienak gaztelaniaz jasotzen ditugu LHKn, baina gure erantzuna ele bietan jakinarazten da.
- Urte osoan zehar, Kontseiluko langileek bidalitako mezu idatzi orokorren neurketa egin da.

#### Errotulazioa

- Kontseiluaren hiru lurralde-egoitzen errotulazioa berrikusi da.

### Jendaurreko ekitaldiak

—Euskara presente egon da uztailaren 13an Bilboko egoitzan egindako prentsurrekoan. Ekitaldi horretan, presidentek *«2022ko EAEko egoera ekonomikoari eta lan-harremanei buruzko txostena»* aurkeztu zuen.

### Formakuntza plana

—Maiatzaren 18an *Hizkuntza inklusiboari* buruzko formakuntza-saioa egin da (saio teoriko-praktikoa). Elhuyarreko berdintasun-teknikari bat izan da hizlari, eta LHK-ko langile askok hartu dute parte. Dena euskaraz egin da

### Bagabiltza buletina

—**BAGABILTZA** izeneko buletinaren lau zenbaki argitaratu dira 2023an: lehenengoa otsailean, bigarrena maiatzean, hirugarrena urrian eta laugarrena abenduan.

### Euskara Saioak

—Lan Harremanen Kontseiluan EUSKARA SAIOAK izeneko ekitaldi bereziak antolatzea izan da berriro ere Kudeaketa Planaren helburuetako bat, eta guztira hiru egin dira 2023an, hirurak ere Bilboko egoitzan: apirilean, urrian eta abenduan.

### Argazki Lehiaketa

—Argazki Lehiaketa antolatu da 2023an. Kontseiluko langileek udako hiruna argazki aurkez zitzaketen gehienez. Guztira, 14 langilek hartu dugu parte. Urrian ekitaldi berezia egin da, langile guztien (partaide zein ez) bozkak jaso ostean irabazlea nor izan den erabakitzeko (bi irabazle egon dira).

## KONTSEILUAREN FORMAKUNTZA PLANA

2020 urtean formakuntza-beharren diagnostikoa egin zen eta «LHK-ko langileentzako formakuntza-plana» diseinatu zen. Formakuntzarako plan hori Kontseiluko langile guztiek koordinatutako hausnarketaren emaitza izan da, eta garatzen dituzten gaitasunen arabera hartzaile espezifikoak dituzten eremuak biltzen ditu.

## 6. LAN-HARREMANEN ZERBITZU INTEGRAL BATERANTZ

### BATZORDE PARITARIOEI ETA HITZARMEN KOLEKTIBOAK NEGOZIATZEN DITUZTEN BATZORDEEI EMANDAKO ZERBITZUAK

2009. urtean, plan bat onartu zen, Kontseilua lan-harremanen zerbitzu integral gisa finkatzeko asmoz, negoziazio kolektiboa ahalik eta modu gehienetan egitea erraztuz (negoziazio-batzordeak eta batzorde paritarioak). Kontseiluaren oinarritzko eginkizunetako bat da, bere lege erregulatuaren arabera, eta hori betetzea funtsezko faktorea da negoziazioan oinarritutako lan-harremanen sistema finkatzeko, Zuzenbideko estatu demokratiko batekin bat datorren aldetik.

Data horretatik aurrera, aurrera jarraitu da bultzada- eta laguntza-prozesu horretan, eta lankidetzaz eskaini zaie sektoreko hitzarmen kolektiboak negoziatzen dituzten batzordeei eta horietako bakoitzak sortu behar duen batzorde paritarioari. Lankidetzaz horrek hainbat laguntza-maila biltzen ditu: batzordea bera helbideratzea, lokalak bilerarako erabiltzea, batzorde paritarioei zuzentzen zaizkien eskaerak jaso eta tramitatzea, eta Kontseiluko teknikariek edo, batzuetan, Precoko zerrendetako profesionalek parte hartzea. Azken hauek moderatzaile, aholkulari eta akta-idazkari gisa jardungo dute, hitzarmen negoziatioa sustatzen lagunduko dute, batzordeak eratzekeo prozesuan, hitzarmen kolektiboak izenpetzen, paritarioen akordioak gauzatzen... eta aurkezpen telematikoa egingo dute Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan (Regcon).

Lan-harremanen sistemak modu eraginkorrean funtziona dezan, pentsatu behar da negoziatio kolektiboa gertaera ez-zirkunstantziala dela, denboran zehar luzatzen dena, intentsitate desberdinarekin, hitzarmena negoziatzeko edo abian jartzeko unearen arabera. Horregatik, negoziatio-batzordeei eta batzorde paritarioei laguntzeko programa Lan Harremanen Kontseiluaren funtsezko helburu bihurtu da.

Aurreko paragrafoetan aipatzen diren zerbitzuak sektoreko, probintziako edo autonomia-erkidegoko hitzarmen kolektiboetako batzordeei eskaintzen zaizkie. Ez da gauza bera gertatzen enpresa-hitzarmenei dagokienez, gero eta gehiago direlako eta Kontseiluaren giza baliabideak eta azpiegiturak mugatuta daudelako. Hala ere, eta erakundearen ahalmenen barruan, Kontseiluaren egoitzen erabilera eskaintzen zaie negoziatioaren garapenerako, aholkularitza eta laguntza emateko negoziatio-batzordea eratzean eta negoziatioaren

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	ORGANO NAGUSIA	GUZTIRA
HITZARMEN EDO AKORDIO KOLEKTIBOAK	3	9	9	1	22
SOLDATA-BERRIKUSPENA	2	4	5	5	16
AURRERAERAGINA ZABALTZEA	0	0	0	0	0
HITZARMENA ALDATZEA	3	2	0	1	6
BATZORDE PARITARIOAREN ERAB. / ARBITRAJE-LAUDOA	4	3	0	3	10
NEGOZIAZIOA HASTE ETA SALAKETAK	2	0	1	0	3
EZ APLIKATZEKO AKORDIOAK	0	0	0	0	0
HITZARMENAREN ONDORIOZKO AKORDIOAK	0	1	0	3	4
LAN-EGUTEGIA	2	1	0	0	3
GUZTIRA	16	20	15	13	64

**2023an  
ERREGISTRATU ETA  
ARGITARATZEKO  
AURKEZTUTAKO  
HITZARMEN  
ETA AKORDIO  
KOLEKTIBOAK,  
SEKTOREKOAK EDO  
LANBIDE ARTEKOAK**

amaieran. Eratze-bilkura eta azken bilkura moderatzen dira, eta dagozkion aktak egiten dira; ondoren, ateratzen den hitzarmena Lan Agintaritzari aurkezten zaio, hitzarmen kolektiboen erregistro telematikoaren bidez, bai hitzarmen hori Kontseiluaren egoitzetan negoziatu denean, bai, Kontseilutik kanpoko egoitza batean negoziatu ondoren, alderdiek laguntza tekniko hori behar dutenean erregistratu eta argitaratzeko. Bada, 2023. urtean guztira 28 inskripzio- edo gordailu-eskaera tramitatu ditu Kontseiluak Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan, enpresa-arloko negoziazio kolektiboaren esparruan.

2023. urtean zehar, eta COVID-19 pandemiaren eragina eta horri lotutako edukiera-mugak arindu ahala, pandemiaren ondorioz ezarritako edukiera-muga guztiak desagertu ondoren, berriro ere presentzialtasunari heldu zaio, Lan Harremanen Kontseiluaren lurralde-egoitzetan negoziazio-batzordeen eta batzorde paritarioen bilerak egiteko modu ohikoena baita. Hala ere, Kontseiluak

batzorde horien eskura jarri du bileren formatu presentziala eta mistoa konbinatzeko aukera, hain zuzen ere, parte-hartze telematikoaren eta presentzialaren bidez.

Lan Harremanen Kontseiluak laguntza teknikoa ematen dio ohiko negoziazio-jardueraren garapenari, eta horri buruz emandako informazio publikoari dagokionez, Lan Harremanen Kontseiluaren webguneak informazio hori eguneratzeko prozesuarekin jarraitu du (2020an hasi zen). Hala, azken hiru urteetan Kontseiluaren laguntza jasotako hitzarmen kolektiboen negoziazio-batzordeen zerrenda sartu da webgune horretan, eta honako hauek zehaztu dira: zein sektoreri dagokion, azken negoziazio-prozesuaren datuak (eraketa-data eta batzordearen azken bilerarena), eta argitalpen ofizialerako estekarekin sinatutako azken hitzarmenaren argitaratze-data; datu horiek guztiak bi hilabeterik behin eguneratu dira. Lan Harremanen Kontseiluan helbideratuta dauden edo laguntza teknikoa jasotzen duten batzorde paritarioei dago-

kienez, Kontseiluaren webgunean jasotako informazioan agertzen da noiz eratu diren eta 2023 urte osoan egin dituzten jarduera-motak.

Ondoren, Kontseiluak azken hiru urteetan zerbitzuak eman dizkien negoziazio-batzordeen eta batzorde paritarioen zerrenda aurkezten da. Horietan, asterisko (\*) batekin identifikatu dira 2021etik 2023ra bitartean hasitako negoziazio-esparru berriak, eta bi asteriskorekin (\*\*), hainbat arrazoi direla medio aurrera egin ez duten negoziazio-esparru berriak. Horiei dagokienez, jardueraren bat egin da aldi horretan, Lan Harremanen Kontseiluaren laguntzarekin.

Lan Harremanen Kontseiluaren egoitzek 2021., 2022. eta 2023. urteetan emandako zerbitzuaren datu bereziki garrantzitsu gisa, azpimarratzekoa da sektore-mailako batzorde parekide espezifikoetan jardun izana. Bada, zerbitzu hori jarraian xehatzen den informazioaren barruan zehazten diren sektoreei eta gaiei buruzkoa da.

## LAN HARREMANEN KONTSEILUAK AZKEN HIRU URTEETAN HIRU LURRALDE-EGOITZETAN BERE ZERBITZUAK EMAN DIZKIEN SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALEN (EDO PAREKOEN) NEGOZIAZIO-BATZORDEEN, BATZORDE PARITARIOEN ETA BATZORDE PARITARIO ESPEZIFIKOEN ZERRENDA

### ARABA

#### NEGOZIAZIO-BATZORDEAK:

- Aisialdiko hezkuntza eta animazio soziokulturala
- Bidaiarien errepide bidezko garraioa
- Egoitza pribatuak \*
- Elikagaien merkataritza
- Eraikin eta lokalen garbiketa
- Eraikuntza eta herri-lanak
- Esku hartze soziala
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua
- Eusko Jaurlaritzaren zentroen garbiketa-zerbitzuaren emakidadunak
- Ezgaitasuna eta Aniztasun funtzionala \*
- Hirugarrenentzako kirol-jarduerak
- Industria siderometalurgikoa
- Metalaren merkataritza
- Okindegien industria eta merkataritza
- Ostalaritza
- Salgaien errepide bidezko garraioa, eta garraio-agentziak
- Zementuaren eratorriak
- Zuraren industria

#### BATZORDE PARITARIOAK:

- Aisialdiko hezkuntza eta animazio soziokulturala
- Bidaiarien errepide bidezko garraioa
- Altzarien merkataritza
- Ehungaien merkataritza
- Elikagaien merkataritza
- Eraikin eta lokalen garbiketa
- Eraikuntza eta herri-lanak
- Esku hartze soziala
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua
- Eusko Jaurlaritzaren zentroen garbiketa-zerbitzuaren emakidadunak
- Hirugarrenentzako kirol-jarduerak
- Industria siderometalurgikoa
- Ostalaritza
- Salgaien errepide bidezko garraioa, eta garraio-agentziak
- Zuraren industria

#### BATZORDE PARITARIO ESPEZIFIKOAK:

- Industria siderometalurgikoa: Berdintasun Batzordea
- Herri-lanak eta Eraikuntza: Berdintasun Batzordea
- Zuraren industriak: Berdintasun Batzordea

## BIZKAIA

### NEGOZIAZIO-BATZORDEAK:

- Aniztasun funtzionala \*\*
- Autoeskolak
- Arrain-kontserbak eta arrain gazituak
- Arte eszenikoak (EAE) \*
- Arte grafikoak
- Artisau-gozogintza eta -pastelgintza
- Bidaiarien errepide bidezko zerbitzu erregularren eta diskrezionalen garraioa
- Bilboko Portuko zamaketariak
- Bizkaiko zamalanak
- Bulego eta despatxuak
- Butanoaren banaketa
- EAEko eraikinak, lokal judizialak eta adingabeen zentroak garbitzea Bizkaiko lurralde historikoan
- EAEko etxeko langile emakumezkoak \*\*
- EAEko gaixoen eta istripua izandakoen errepide bidezko garraio sanitarioa anbulantzia
- EAEko gizarte-ekimeneko irakaskuntza-zentroak
- EAEko ostalaritza (Esparru-akordioa)
- EAEko sukaldaritza kolektiboa \*\*
- EAEren finantzaketa duten eta helduei euskara irakasten dieten euskaltegiak eta zentro homologatuak \*\*
- Ehungaien merkataritza
- Elikagaien merkataritza
- Eraikin eta lokalen garbiketa
- Eraikuntza
- Errepide bidezko garraioa eta garraioaren jarduera lagungarri eta osagarriak
- Eskola-garraioan eta patioan lagun egiteko zerbitzuaren enpresa esleipendunak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendekoak direnak (EAE)

- Esku hartze soziala
- Etxez etxeko banaketa elikagaigintza-sektorean \*
- Etxez etxeko laguntza
- Euskara EAE \*\*
- Farmazia-bulegoak
- Fruta eta barazkien biltegi-jabeena eta bananen biltegi-jabeena
- Garbiketa-zerbitzuko enpresa emakidadunak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta UPV/EHUREN mendekoak diren zentroetan (EAE)
- Gasolina-zerbitzuguneak
- Hirugarren adinekoentzako egoitzak
- Industria siderometalurgikoa
- Larruaren eta oinetakoen merkataritza
- Lokalak eta kirol-zelaiak
- Merkataritza orokorra
- Osakidetzako lokalen garbiketaren enpresa emakidadunak (EAE)
- Ostalaritza
- Petronor, S.A.-ren enpresa kontratistak, enpleguaren egonkortasunerako ituna

### BATZORDE PARITARIOAK:

- Arrain-kontserbak eta arrain gazituak
- Artisau-gozogintza eta -pastelgintza
- Bidaiarien errepide bidezko zerbitzu erregularren eta diskrezionalen garraioa
- Butanoaren banaketa
- EAEko gaixoen eta istripua izandakoen errepide bidezko garraio sanitarioa anbulantzia
- EAEko gizarte-ekimeneko ikastetxeak
- Ehungaien merkataritza

- Elikagaien merkataritza
- Eraikin eta lokalen garbiketa
- Eraikuntza
- Errepide bidezko garraioa eta garraioaren jarduera lagungarri eta osagarriak
- Esku hartze soziala
- Eskola-garraioan eta patioan lagun egiteko zerbitzuaren enpresa esleipendunak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendekoak direnak (EAE)
- Etxez etxeko laguntza
- Gasolina-zerbitzuguneak
- Hirugarren adinekoentzako egoitzak
- Industria siderometalurgikoa
- Kolektibitateak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dauden zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietan (EAE)
- Likoreen fabrikazioa eta ardoen hazle, esportatzaile, botilaratzaile eta biltegi-jabeak
- Lokalak eta kirol-zelaiak
- Merkataritza orokorra
- Metalaren merkataritza
- Osakidetzako lokalen garbiketaren enpresa emakidadunak (EAE)
- Ostalaritza
- Petronorreko kontratak: enplegu-egonkortasunerako ituna

### BATZORDE PARITARIO ESPEZIFIKOAK:

- Industria siderometalurgikoa: Berdintasun Batzordea

## GIPUZKOA

### NEGOZIAZIO-BATZORDEAK:

- Adinekoen egoitzak
- Aparkamendua eta trafikoaren antolamendua
- Arrain eta itsaskien handizkariak
- Arte Grafikoak eta Industria Osagarriak, Paperaren eta Kartoiaren Manipulatuak eta Argitaletxeak
- Bidaiariaren errepide bidezko garraioa
- Ehungaien merkataritza
- Elikaduraren industria eta merkataritza
- Eraikin eta lokalen garbiketa
- Eraikuntza eta herri-lanak
- Esku hartze soziala
- Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauzkan zentroyen garbiketa (zerbitzuaren enpresa emakidadunak)
- Fruta eta barazki handizkariak
- Garraiolariak
- Gasolina-zerbitzuguneak
- Gipuzkoako eraikin judizialen eta adingabeen zentroyen garbiketa (zerbitzuaren enpresa emakidadunak)
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendeko eraikin eta lokalen garbiketa (enpresa emakidadunak)
- Informazioaren eta Dokumentazioaren kudeaketa \*
- Industria siderometalurgikoa
- Irungo Udalaren zentroyen garbiketa (zerbitzuaren enpresa emakidadunak)
- Kale-garbiketa
- Liburutegiak eta artxiboak
- Okindegien industriak
- Ostatuak
- Pasta, paper eta kartoiaren fabrikazioa

- Pastelen eta gozoen industria eta merkataritza
- Salbamendua eta sorospena naturguneetan, Gipuzkoako administrazio publikoei zerbitzua ematea \*
- Sukaldaritza-enpresak
- Titulartasun publikoko kirol-instalazioak
- Zuraren industria \*

### BATZORDE PARITARIOAK:

- Arte grafikoak
- Bidaiariaren errepide bidezko garraioa
- Ehungaien merkataritza
- Elikaduraren industria eta merkataritza
- Eraikuntza eta herri-lanak
- Esku hartze soziala
- Etxez etxeko laguntza Donostian (zerbitzuaren enpresa emakidadunak)
- Etxez etxeko laguntza Irunen (zerbitzuaren enpresa emakidadunak)
- Gaixoen eta istripua izandakoen garraioa ambulantzian
- Garraiolariak
- Gasolina-zerbitzuguneak
- Industria siderometalurgikoa
- Informazioaren eta Dokumentazioaren kudeaketa
- Irungo Udalaren zentroyen garbiketa (zerbitzuaren enpresa emakidadunak)
- Kale-garbiketa
- Lokalak eta ikuskizunak
- Okindegien industria
- Ostatuak
- Pasta, paper eta kartoiaren fabrikazioa
- Pastelen eta gozoen industria eta merkataritza
- Sukaldaritza-enpresak

### BATZORDE PARITARIO ESPEZIFIKOAK:

- Arte grafikoak: Euskara Batzordea
- Elikaduraren industria eta merkataritza: Lan Batzordea, lanbideen sailkapena aztertzeke
- Esku hartze soziala:
- Lanbideen sailkapena aztertzeke Batzordea
- Urruneko laneko eta telelaneko Batzordea
- Hizkuntza Normalkuntzaren Sektoreko Batzordea (Euskara Batzordea)
- Industria siderometalurgikoa: Batzordea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko
- Pasta, paper eta kartoiaren fabrikazioa: Lanbideen sailkapena aztertzeke Batzordea

\* Negoziazio-esparru berria.

\*\* Negoziazio-esparru berria lortzeko ahalegina, gaur-gaurkoz aurrera egin gabe.


## APLIKATZEKO HITZARMENARI BURUZKO KONTSULTAK

2009. urtearen erdialdean, Kontseiluaren webgunean, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa bakoitzean, edo hala badagokio, lantoki bakoitzean, aplikatzeko hitzarmen sektorialari buruzko kontsulta-zerbitzu berria sartu da. Informazio hori ez da loteslea, hau da, ez da legezkoa, eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa zehazteko laguntza teknikoa ematea du helburu bakartzat. Kontsulta egiteko, nahikoa da formulario erraz bat betetzea, orri korporatiboaren bidez.

Zerbitzua martxan jarri zenetik, goranzko joera ikusten da aurkeztutako eskaeren kopuruan, eta 2021ean maximora iritsi zen (281 kontsulta), COVID-19 koronabirusaren agerpenak eragindako jarduera-moteltzearen ondorioz 2020an izandako beherakadaren ondoren.

Adierazi behar da, aurkeztutako kontsulten kopurua murriztu bada ere, jasotzen diren eskaerak gero eta konplexuagoak direla, eta, beraz, eskabide bakoitza sakon aztertu behar dela. Bertan, enpresaren jarduera nagusiaz eta aplikatu daitezkeen hitzarmenen eremu funtzionalez gain, «Comisión Nacional de Convenios Colectivos» delakoak emandako irizpenak ere aztertzen dira.

### APLIKATZEKO DEN HITZARMENARI BURUZKO KONTSULTAK (2009-2023)





## 7. PRECO, GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURAK

1991z geroztik, eta Preco Lanbide Arteko II. akordioaren 1990eko sinaduraren ondorioz, lortutako ondorengo akordioek sortutako gatazkak konpontzeko prozedurak etengabe kudeatu dira gaur egun arte, eta horietako azkena Preco Lan Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide arteko Akordioa da (66. zenbakiko EHAA, 2000ko apirilaren 4koa), 2000ko otsailaren 16an Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkartzarrik handieneko sindikatu eta enpresaburu konfederazio guztiek sinatu zutena.

2023an, Lan Harremanen Kontseiluak, bere hiru lurralde-zerbitzuen bidez, Preco Akordio honen prozedurak izapidetzen jarraitu du, eta, jarraian, haren kudeaketari buruzko datuak azalduko dira, bi parametro bereizi eta osagarritan oinarrituta. Alde batetik, 2023an eskatutako prozedurei buruzko informazioa bildu dugu, eta zifra aurreko hamar urteetakoarekin konparatzen da, aldi horretan Precoren bitartez bideratutako lan-gatazken bilakaeraren ikuspegia eskaintzeko; eta, bestetik, urtean amaitutako prozedurei buruzko informazioa jaso dugu, haren kudeaketa eta emaitzak aztertzeko; eta aurreko urteetan amaitutako prozeduren azterketa konparatiboa ere egin da.

## AURKEZTUTAKO ESKAERAK

### GATAZKA KOLEKTIBOAK

Termino absolutuetan, grafikoan erakusten da 2023an gatazka kolektiboko prozeduren **eskaerak** 645 izan zirela. Zifra hori 500 prozeduratik gorakoa da, 2020an (590), 2021ean (576) eta 2022an (525) bezalaxe, prozedura-eskaeren kopurua handitu egin baita pandemiaren lehen bi urteekin alderatuta ere. Nolanahi ere, 2023ko eskaeren bolumena 2014-2022 urteetan aurkeztutako eskaeren batez bestekoa (544) baino dezente handiagoa izan zen.


Zehazki, 2023an aurkeztutako eskaeren kopuruak %22,9 egin zuen gora, 2022an izapidetutako 525 eskaeren aldean. Datu horrek berretsi egiten du 2014az geroztik memorieta adierazitako normaltasunerako joera; izan ere, 2000n, Preco azken akordioa sinatuta, adiskidetzaren edo bide judicialaren aurreko bitartekotzaren izapide eskusiboa egin zenetik, urtez urte izapidetutako gatazka kolektiboko eskaerak 400-600 inguruan mantendu dira, baina 2023an zifra horiek gainditu egin dira, eta 645 eskaera egin dira, aurreko paragrafoan adierazi den bezala.

2008an hasitako krisi ekonomikoaren eta 2011. eta 2012. urteetako lan-erreformen garaian nabarmen handitu ziren gatazka kolektiboaren eskaerak. 2013an, 1.349 gatazka izan ziren, sektore publikoan 2012ko abenduko aparteko ordainsaria kentzeagatik eta, batez ere, hitzarmen kolektibo kopuru handi baten aurreraeraginaren amaieragatik egindako erreklamazioengatik. Horren ondorioz, enpresa askok horren guztiaren inguruan beren langileei egindako komunikazioak masiboki aurkaratu ziren.

Orduz geroztik normaltasunera itzultzen joan gara, hiru ekitalditan 600 gatazka zenbatu zirelako, gutxi gorabehera. 2017tik 2019ra bitartean, askoz maila apalagoak izan ziren, 500 eskaera inguru, baina 2013aren aurreko urteetan baino gehiago. Hala ere, joera hori eten egin zen 2020. eta 2021. urteetan. Ekitaldi horietan, beste krisi batek, kasu honetan osasun- eta ekonomia-krisiak, eskatutako prozeduren kopurua berriz ere handitzea eragin zuen. Igoera hori areagotu egin da 2023an; izan ere, eskaeren bolumena 645ekoa izan da, eta, lehen adierazi bezala, 2014-2021 aldiko eskaeren batez bestekoa gainditu du.

Ohikoa denez, aldakuntza hori, 2022ko datuekin alderatuta, oso desberdina izan da Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan: batez ere, Araban (+%54,7) eta Bizkaian (+%26,9) eman da prozeduren gorakada, eta Gipuzkoan, aldiz, eskaeren beherakada ikusi da (-%6,1). Horrela, 2022an Gipuzkoan izan zen goranzko joera eten egin da 2021ean eskatutako prozedurekin alderatuta (+%14,8).

### AURKEZTUTAKO GATAZKA ESKAERAK (2015-2023)



**Eragindako pertsonen kopuruari** dagokionez, 2023an 142.824 izan ziren guztira, eta 2022an 106.709; hau da, aurreko urtean baino %33,8 gehiago. 2023an aurkeztutako eskaeren eraginpeko langileen kopuruak gora egitea bat dator urte honetan hasitako prozeduren gorakadarekin, bai eta sektore-eremuei dagozkien gatazka kolektiboak bost izatearekin ere; izan ere, 2022an hiru baino ez ziren izan.

Gatazken **eremu funtzionalari** dagokionez, 2023an izapidetutako eskaera ia guztiak enpresakoak izan dira, ohi bezala. Zehazki, 2023an, sektore-eremuko bost eskaera baino ez dira aurkeztu. Gainerako eskaerak (640) enpresa-eremuko gatazka kolektiboak buruzkoak dira, %12,5 sektore publikoko enpresa eta erakundeetan, eta gainerakoak (%87,5) sektore pribatuko enpresetan.

**Sektore ekonomikoei** dagokienez, 2023an, 2021etik industria-sektorearen aurrean zerbitzuen sektorearen nagusitasunerako joera nabarmenari eutsi zitzaion. Zehazki, industria-sektoreko gatazka aurkeztutako prozedura guztien %33,5 izan dira, eta zerbitzu-sektoreari buruzko eskaerak, berriz, guztizkoaren %64,0 izan dira 2023an.

Analisiaren ikuspegi horretatik, komeni da gogoratzea 2006. urte horretatik aurrera industria-gatazka pixkanaka gainbehera etorri zirela, eta zerbitzu-sektorean, aldiz, gorakada nabaria izan zela; 2009. Urtean inflexion-puntua gertatu zen, izan ere, industria-prozedurak jada % 50etik beherako ehunekoetan kokatu ziren, % 45,4an zehazki, eta zerbitzuen sektorearekin lotutako eskaerak, berriz, %52,9 izan ziren. Bada, joera hori ez da inoiz lehenatu, hurrengo urteetan sendotuz joan da, eta 2015. urtean lortu zuen alde historikorik handiena:

### PROZEDURA-ESKAEREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (2015-2023)

		2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
EAE	PROZEDURA-KOPURUA	573	613	494	476	464	590	576	525	645
	ERAGINPEKO LANGILEAK	186.645	200.406	134.363	114.190	117.988	230.501	259.609	106.709	142.824
ARABA	PROZEDURA-KOPURUA	94	133	103	109	131	159	146	117	181
	ERAGINPEKO LANGILEAK	34.688	38.793	36.694	55.872	40.620	113.007	44.197	28.983	55.929
BIZKAIA	PROZEDURA-KOPURUA	326	319	245	253	232	334	288	245	311
	ERAGINPEKO LANGILEAK	138.650	143.871	45.786	46.230	62.160	105.668	178.511	50.014	70.835
GIPUZKOA	PROZEDURA-KOPURUA	153	161	146	114	101	97	142	163	153
	ERAGINPEKO LANGILEAK	13.307	17.742	51.883	12.088	15.208	11.826	36.901	27.712	16.060

zerbitzuen sektoreak gatazken %65,3 bereganatu zuen, eta industria-sektoreak, berriz, %30,9 (2023 urteko zifrak oso antzekoak dira). Arrazoizkoa da pentsatzea joera hori EAEko ekoizpen-sarearen osakeraren beraren bilakaerari lotuta dagoela.

Eskaerak sektorearen esparru ekonomikoaren arabera aurkeztearen bilakaeraren azterketa horrek, 2020ra arte gertatzen zen bezala, lotura zuzena

du 2023an (urtarrila-azaroa) Lan Agintaritzaren aurrean erregistratutako greba-kopuruaren bidez adierazitako lan-gatazkekin. Hala, egindako greben %65,54 zerbitzuen sektorean metatu ziren; industrian, berriz, greben %31,08 egin ziren, eta eraikuntza-sektoreko greba-egunen eragina oso txikia izan zen (%3,04). Hala ere, 2021ean eta 2022an joera alderantzizkoa izan zen; izan ere, industria-sektoreko greba-egunek gehiago argia

hartu zuten (2022an, guztizkoaren %80,7), eta zerbitzuen sektorekoak, berriz, txikiena (%18,7).

2023ko datu aipagarri gisa, esan behar da PRECOren bidez bideratutako lan-gatazkak ia %23 igo direla, eta eraginpeko langileak, berriz, %33,8. Esan bezala, EAEn egindako greben kopuruak behera egin du pixka bat (%8,07), baita eragindako langileenak ere (%47,59).


**Gatazka-motei** dagokionez, prozeduren xede nagusia enpresaren erabakiari edo praktikari dagozkien gatazkak dira oraindik ere; horien bidez, enpresak hartutako neurriak (era askotakoak) aurkaratzen dira. Gatazka horiek prozedura guztien %50en gaineratik egon dira historikoki; 2023an %60,3ra iritsi ziren (389 eskaera), hau da, ehuneko

6,8 puntuko igoera, 2022an eskatutakoekin alderatuta. Informazio hori oinarri hartuta, ondoriozta daiteke Precoren prozedura-mota nagusia enpresen zuzendaritzaren antolamendu-ahalmenak baliatzean sortzen diren desadostasunei buruzkoa dela.

2023an, behera egiten jarraitzen dute, neurri txikiagoan bada ere, arauak eta itun edo hitzarmen kolektiboak interpretatzeari edo aplikatzeari buruzko gatazkek: %26,4 2023an (170 eskaera), %28,2 2022an (148 eskaera), eta %39,4tik urrun 2021ean (227 eskaera). Ohi bezala, horrelako gatazka gehienak hitzarmen kolektiboak interpretatzeari edo betetzeari buruzko desadostasunak izan dira, eta oso gutxi izan dira lege-arauak interpretatzeari edo aplikatzeari buruzko eskaerak.

2023an, eta aurreko urtean negoziazio-gatazkei buruzko eskaerek nabarmen gora egin ondoren (2022an aurkeztutako eskaera guztien %15,6, eta 2021ean, aldiz, %5,4), berriz ere nabarmen jaitsi dira mota horretako gatazkei buruz aurkeztutako eskaera guztiak, %9,0raino.

Gainerako gatazkak honela banakatzen dira: enpresa bateko erakunde sindikal jakin bateko afiliazio-portzentajea egiaztatzeko 27 eskaera (PRECOren aplikazio-arauetan onartutako aukera zenbait hitzarmen kolektibotan aurreikusitako eskubide sindikalak gauzatzeko ziurtapen-beharrei erantzuteko), eta hitzarmen kolektiboko batzorde paritarioek aurkeztutako prozedura bat, bere baitan sortutako desadostasun bati buruzkoa.



2023an aurkeztutako **gatazken tipologia** azaletik aztertzen hasita, hiru gogoeta nabarmendu behar dira. Lehenik eta behin, urte hasieran, abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuaren bidez egindako lan-erreforma onartzearekin lotutako eskaera gehiago aurkeztu ziren, zehazki, hitzarmen kolektiboak aplikatzeko lehentasuna arautzeari eta enpresa-kontratazioko praktikak erregulazio berrira egokitzeari dagokienez, 2022 osoan gertatu zen bezala. Bigarrenik, iaz bezala, 2021aren amaieran hasi eta 2023an jarraipena izan zuen inflazio-unearekin lotutako hainbat egoerarekin lotutako prozedurak daudela ere egiaztatu da. Eta, azkenik, adierazi behar da pandemiaren fase desberdinak gainditu ondoren, pandemiarekin lotutako ABEE-ei buruzko eskaerak ia desagertu egin direla, eta 2023 osoan eskaera bakarra erregistratu dela.

2023an, aurreko urteetan ere nabari zen joera bat finkatu da, alderdiek interes-gatazkak konponitzeko prozeduretan (hau da, negoziazio kolektiboaren blokeo-egoerarekin lotutakoetan) eta grebetan jarritako konfiantzari dagokionez. Zehazki, 2023an, negoziazio kolektiboko prozesuekin lotutako 49

prozedura izapidetu dira enpresa- edo lantoki-mailan, eta grebekin lotutako 32 prozedura. Joera orokorra bada ere, esku-hartze horien eragin erlatiboa desberdina da hiru lurralde historikoen artean, ezaugarri desberdinak dituztelako.

Adiskidetze-topaketak egiteko modalitateari dagokionez, 2023an areagotu egin da aurrez aurrekoa (joera hori 2021ean hasi zen). Modalitate horrekin batera, formatu telematikoan soilik egindako adiskidetze-topaketak ere egin dira, bai eta formatu mistoan, presentzialean eta telematikoan oinarrituta egindako adiskidetze-topaketak ere, betiere prozeduretan inplikaturako alderdiek egindako eskaeren arabera.

Ikuspegi kualitatibotik, adiskidetze-saioak modu telematikoan eta formato mistoan egitea elkarriketa-modalitate berri gisa ikusten da gatazka kolektiboen esparruan. Ez du galarazten negoziazio-prozesu errealak eta eraginkorrak garatzea, eta akordioak lortzeko aukera ematen du gatazkaren baldintzek eta aldean borondateak horretarako aukera ematen dutenean.

## BANAKAKO GATAZKAK

Precore borondatezko prozedurei buruzko Lanbide Arteko Akordioaren 6. artikulua babesean, Precoren Batzorde Paritarioak hitzarmen kolektiboetan ezarritako bereizgarri jakin batzuk onartu zituen; izan ere, Precora bideratzen zituzten banakako gatazkak.

Hala ere, bide hau gutxitan erabili izan da beti. Izan ere, azken hamaika urteetan banakako gatazken 42 espediente izapidetu dira Kontseiluaren Arabako egoitzan, eta azpimarratzekoa da Lurralde Historiko horretan eskaera mota horien bolumena 7koa izan dela 2022an, eta 21ekoa 2023an (%200 handitu da). 2023an, Bizkaian eta Gipuzkoan banakako gatazken espediente bakarra egon zen lurralde bakoitzean, eta 23 banakako espediente eskatu ziren guztira EAEn.

## GATAZKA KOLEKTIBOEN PROZEDURAK KUDEATZEA

### PROZEDURAK, AMAITZEN DIREN FASEAREN EDO UNEAREN ARABERA

Precoren prozeduretan bi fase bereizten dira; hasierako fasea deitutakoan, Lan Harremanen Kontseiluko langile teknikoek adiskidetzeari helburu duen topaketa bat antolatzen dute, prozeduren kudeaketa eta sustapenez arduratuz, eta bigarren, bi alderdiek ados jarrita aukeratutako kanpo profesional baten laguntzarekin prozedura gauzatu da. Lehen fasean adostasunik lortzen ez denek ekiten zaio bigarren faseari, eta kasu gehienetan, gatazkaren alderdi bakoitzaren gehiengoak nahi duen guztietan, salbuespen puntualak izan


ezik, horiek aukera ematen baitute bitartekaritzari ekiteko alderdietako bakar batek eskatuta.

Hala eta guztiz ere, Kontseiluko teknikariekin jarraitzeko joera sendotzen ari da, akordio bat lortzen ahalegintzeko profesional batekiko prozedura irekitzeko beharizanik gabe.

Horren guztiaren ondorioz, 2023an ere bi alderdiek oso gutxitan onartu dute profesional batekiko prozedura baten eraginpean jartzea. Hala, berretsi egin da azken zortzi urteetan prozedura hasi eta amaitzeko joera, hain zuzen ere, Kontseiluko teknikarien esku-hartze bakarraren bidez, adiskidetze-saioaren moderazio-eginkizunetan. Izan ere, adiskidetze-saioa, gero eta maizago, paraleloki, zenbait bilera-tan luzatu eta garatzen da, non gatazkaren aldeek hasierako jarrerak moldatzen baitituzte.

2012ko lan-erreforma indarrean sartu arte, hasierako fasean (adostasunarekin edo adostasunik gabe) amaitzen zen kasuen batez besteko banaketa edo profesional batekin jarraitzen zuen kasuen banaketa % 75,9koa eta % 24,1koa zen, hurrenez hurren. 2013. urtean, hitzarmen kolektiboaren aurreraeragina amaitu osteko gatazken ondoriozko eskaera kopuru handia zela eta, hasierako fasean bakarrik garatutako prozedurei dagokien ehunekoa % 95,6ra igo zen. Bada, 2013. urtean izan zen salbuespena gaindituta, profesionalak parte hartu zuen prozeduren ehunekoa berreskuratu zen hein batean, baina ez, inondik ere, urte horren aurreko balioetan.

Aldi berean, ordutik aurrera aldeek interes handiagoa agertu zuten Kontseiluko teknikarien laguntzarekin lanean jarraitzeko. Testuinguru horretan, 2014tik 2022ra bitartean, profesionalen esku-hartzea hasitako prozeduren %10,9 eta %4,5 (2022) arteko tartean kokatu da, eta 2023an zertxobait igo da, %5,6ra; izan ere, 37 espedientetan profesional baten esku-hartzea eskatu da, amaitutako 660 espedienteen barruan.



**GATAZKA KOLEKTIBOEN PROZEDUREN EMAITZA TERMINO OROKORRETAN**










Konpondutako gatazken tasak behera egin zuen zertxobait 2022arekin alderatuta, eta %24,7koa izan (163 prozedura); hau da, aurreko urtekoa (%26,8) baino 2,1 puntu gutxiagokoa, baina 1,5 puntu gehiagokoa, 2018/2022 aldiko urteko batez bestekoarekin alderatuta (%23,2).

Kopuru hori 2023ko abenikoak urte horretan amaitutako eskabide guztiekin alderatzearen emaitza da. Benetan izapidetutako eskabide guztiekin alderatuz gero (atzera egindakoak eta izapidetzea ez onartzeagatik nahiz kontrako alderdiak ez ager-

tzeagatik artxibatutakoak kenduta), konpondutako ehunekoa, errealitatekin hurbilen dagoena, %27,7koa izango litzateke.

Hiru lurralde-egoitzetan, gatazka konpontzeari dagokionez, aldeak ez dira handiak, ehunekotan, 2023an horietako bakoitzean amaitutako prozedurei dagokienez: Araban, %25,3; Bizkaian, %24,2; eta Gipuzkoan, %25,2. Jaitsi egin da Araban eta Gipuzkoan adostasunarekin amaitutako prozeduren ehunekoa, 2022an adostutakoekin alderatuta, eta oso gutxi bada ere, igo egin da ehuneko hori Bizkaian.

**PROZEDUREN EMAITZA, TERMINO OROKORRETAN (2015-2023)**


<b>AMAITUTA 2015</b>  125 KONPONDUTA - %23,1	<b>541</b> 416 KONPONDU GABE - %76,9
<b>AMAITUTA 2016</b>  167 KONPONDUTA - %25,7	<b>649</b> 482 KONPONDU GABE - %74,3
<b>AMAITUTA 2017</b>  147 KONPONDUTA - %29,2	<b>504</b> 357 KONPONDU GABE - %70,8
<b>AMAITUTA 2018</b>  120 KONPONDUTA - %23,6	<b>508</b> 388 KONPONDU GABE - %76,3
<b>AMAITUTA 2019</b>  130 KONPONDUTA - %26,3	<b>490</b> 360 KONPONDU GABE - %73,5
<b>AMAITUTA 2020</b>  102 KONPONDUTA - %18,7	<b>545</b> 443 KONPONDU GABE - %81,3
<b>AMAITUTA 2021</b>  132 KONPONDUTA - %21,7	<b>608</b> 476 KONPONDU GABE - %72,3
<b>AMAITUTA 2022</b>  136 KONPONDUTA - %26,8	<b>508</b> 372 KONPONDU GABE - %73,2
<b>AMAITUTA 2023</b>  163 KONPONDUTA - %24,7	<b>660</b> 497 KONPONDU GABE - %75,3

## HASIERAKO FASEAN AMAITUTAKO GATAZKA KOLEKTIBOEN PROZEDURAK

Printzipioz eskaera guztiak fase honetatik igarozten dira. Adiskidetze, bitartekaritza edo arbitraje bateranzko bitarteko fasea izan behar zuen hasiera batean, baina azken fasea ere izan daiteke, bi alderdietako batek onartzen ez badu profesionalaren esku-hartzea dakarren prozedura bati hasiera ematea.

Kasu horretan jarduna adostasunarekin amai daiteke, baldin eta Lan Harremanen Kontseiluko teknikariek lortzen badute alderdiak adostasun horretara iristea haiekin egiten dituzten bileretan, edo adostasunik gabe, alderdiek akordiorik lortzen ez badute.

Hurrengo grafikoan profesional batek lagundutako prozedurara pasa gabe amaitu diren 2023. urteko eskaeren datuak adierazten dira. Termino absolututan, fase horretan 623 prozedura amaitu dira guztira, hau da, 2023an amaitutako 660 eskaeren %94,4; bada, horrek 2013an hasitako ildo historikoa (aurrez aipatu dena) berresten du.



2023. urtean, grafikoan adierazten den bezala, hasierako fasean amaitu ziren gatazka kolektiboaren artean (623, guztira) alderdien arteko akordioarekin amaitu ziren %21,8 (136). Horrek esan nahi du, 2022. urtearekin alderatuz (%24,9), jaitsi egin direla 3,1 puntu.

## GATAZKA KOLEKTIBOAK KONPONTZEKO PROZEDURAK, PROFESIONALAREKIN

Aurrez adierazi dugunez, gutxi dira hasiera fasean konpondu ez diren eta, alderdiek adostuta, aukuratutako kanpo profesionalaren esku hartzearekin adiskidetze, bitartekaritza edo arbitraje moduan jarraitzen duten prozedurak. Zehazki, 2023an soilik 37 espediente izan dira; zehazki, 30 adiskidetze, 3 bitartekaritza eta 4 arbitraje. Ehunekotan, prozedura horiek 2023an amaitutako prozedura guztien %5,6 izan ziren.

Prozedura horien emaitzari dagokionez, 2023an adostasunarekin amaitutako adiskidetzeen eta bitartekaritzen ehuneko bateratua fase horietan ebatzitako prozedura guztien %72,7 (24) izan zen, eta urte horretan Preco Akordioaren esparruan lortutako akordio guztien %14,7 (163). Horiei urtean amaitutako 4 arbitraje-prozeduretan emandako 3 laudoak gehitu beharko litzaizkieke.




## ADISKIDETZEAK

Adiskidetzea Precok erabilitako prozeduretako bat da; prozedura horretan, profesional batek alderdiei beren gatazkari irtenbide zuzen bat lortzen laguntzen die abeniko baten bidez.

2023an, guztira, 30 adiskidetze-prozedura amaitu dira alderdien artean adostuta izendatutako profesionalarekin (amaitutako prozeduren %4,5).

Ondorengo grafikoan, adiskidetze horiek azken urteetan amaitzeko moduak aurkezten dira. Profesional baten bidezko adiskidetzearen eragin-kortasuna oso handia izan da urte honetan ere, serie historiko osoan bezala; izan ere, 24 adostasun lortu dira, hots, 2023an amaitutako adiskidetze guztien %80,0. Datu horrek igoera esanguratsua irudikatzen du, 2022an konpondutako gaien %68,4arekin alderatuta. Beraz, ehunekoak berriro 2021ekoan antzekoak dira, orduan %84,2 baitziren.




Adiskidetzea da, era berean, afiliazioa egiaztatze prozeduraren forma. Prozedura horretan, alderdiek aldez aurretik onartzen dute izendatzen duten profesionalak emango duen ziurtagiria, eta, beraz, adostasunarekin amaitzen da, betiere bi alderdiek aho batez onartzen badute prozedura hori. 2023an, garatutako 30 adiskidetzeetatik 28 afiliazioa egiaztatze prozedurak izan ziren, eta

horietako 21etan adostasunak izan ziren; gainerako 7ak, berriz, sindikatu eskatzaileak atzera egin zuelako (3) edo enpresak egiaztapen-prozedura onartzearekin ados ez zegoelako (4) amaitu ziren. Ondorioz, adiskidetze-prozeduretan lortutako ia akordio guztiak afiliazioa egiaztatze prozedura espezifiko horiei buruzkoak dira.

## BITARTEKARITZAK

Bitartekaritza Precoren beste prozedura bat da; prozedura horretan, profesionalak alderdien arteko akordio zuzenik lortu ez duenean, bi alderdiek onar edo bazter dezaketen proposamen idatzi bat formulatuz amaitzen du bere jarduna.

2023. urtean, 3 bitartekaritza-prozedura amaitu ziren (profesionalen esku-hartzea izan zuten prozedura guztien %8,1), bi alderdiek onartutako proposamenik gabe. Berretsi egin da, beraz, bitartekaritza-espedienteen beheranzko joera, prozedura horien kopurua erdia baino gehiago murriztu baita: 2021ean 9 bitartekaritza izan ziren, 2022an 4, eta 2023an, ostera, 3.

BITARTEKARITZAK  
AMAITZEKO MODUA  
(2015-2023)

Adostasunez

Adostasunik gabe

Atzera egiteak eta beste batzuk

## ARBITRAJEAK

Arbitrajean, azkenik, alde zaureretik profesionalak ematen duen laudoa onartzeko konpromisoa hartzen dute alderdiek. Beraz, prozedura hauetan ezinezkoa da adostasunik eza gertatzea.


2023an, 4 arbitraje garatu dira, eta 3 laudo eman dira (%75,0). Datu aipagarria da, azken urteetako bigarren kopururik handiena delako, 2016a izan ezik, orduan 6 arbitraje-laudo eman baitziren.

## 2023KO KUDEAKETAREN LABURPENA

2023an 660 prozedura amaitu dira (horietako batzuk aurreko urteetan hasitakoak ziren), hau da, %29,9 gehiago 2022koen aldean, orduan 508 izan baitziren. Guztira, 163 eskaeratan lortu zen gatazkari konponbidea ematea, hau da, amaitutako prozedura guztien %24,7an. Horrek esan nahi du 2,1 puntuko jaitsiera egon dela aurreko urtearekin alderatuta, orduan %26,8koa izan baitzen. Hala ere, aurrez esan dugunez, adostasunarekin amaitutako prozedurak %27,7 izango lirateke, baldin eta beste aldea ez agertzeagatik, atzera egiteagatik edo izapidetzeko ez onartzeagatik izapidetu ezin izan ziren eskaerak deskontatzen badira.

Bestetik, profesional baten esku-hartzearekin aurrera eramandako 37 prozeduren %73,0 adostasunarekin amaitu dira, eta horrek berresten du bi alderdiek bide horiek erabiltzea onartzen dutenean bide eraginkorrak direla.

Banakako gatazkei dagokienez, haien bolumena oso txikia da, eta azken hamar urteetan izapidetutako 37 prozeduretara mugatzen da. Hala ere,



2023a berezia izan da, gisa horretako 23 prozedura aurkeztu baitira; horietako 21 adostasunik gabe amaitu dira.

Berrikuntza moduan, adiskidetze-saioak modu telematikoan egiteari ekin zitzaion 2020an, arrakastaz ekin ere, baina 2023an murriztu egin da, aurrez ez baita murrizketarik egon aurrez aurreko bilerak egiteko. 2023. urtearen amaieran, topaketa telematikoak zein aurrez aurrekoak edo mistoak (presentzialak eta birtualak) batera egin dira, eta azken bi modalitate horiek gehiengo dira; telematikoak gutxi batzuk baino ez dira. Bada,

arreta-formula telematiko horri esker, pertsonen arteko joan-etorriek eta harremanek eragindako arriskuak murriztu dira, eta beste egoera batean bidaietarako eta joan-etorrietarako zailtasun bereziak izango zituzten pertsonen parte-hartzea erraztu da.

**PRECOREN BATZORDE PARITARIOAREN JARDUERA 2023AN**

Lan Harremanen Kontseiluaren barruan eta haren zuzendaritzaren eta talde kudeatzailearen laguntzarekin funtzionatzen du Preco Batzorde Paritarioak, zeinak Preco Lanbidearteko Akordioak sortu baitzuen, hain zuzen ere, akordio hori interpretatu eta aplikatzeko eta bere aplikazio-arauak egiteko.

Lehenengo saioan (otsailaren 23an), 2022an Preco prozedurek izandako bilakaera aztertzeaz gain, PRECOko profesionalen profilaria eta proposamen-sistemari buruzko hausnarketa hasi zen, eta Langileen Estatutuaren 86.4 artikulua erreformatu izanak Akordioan izandako eragina baloratu zen. Hurrengo bi bileretan ere, martxoaren 30ean eta maiatzaren 17an, aipatutako azken bi gaiak aztertzeari ekin zioten. Azkenik, irailaren 28ko saioan, Arabako eta Gipuzkoako profesionalen zerrenda eguneratu zen.

## 8. ESTATUTUAREN ARABERAKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK EZ APLIKATZEKO PROZEDURAK EBAZTEKO ORGANOA-ORPRICCE

Abenduaren 30eko 471/2013 Dekretuaren bidez sortu zen gure Autonomia Erkidegoan hitzarmen kolektiboak ez aplikatzeari buruzko desadostasunak ebazteko eskumena —Langileen Estatutuaren 82.3 artikuluan ezarritakoa— duen erakunde publikoa. Estatuan, eskumen hori «Comisión Consultiva Nacional de Convenios Colectivos» delakoari dagokio.

ORPRICCEk hiruko izaera du, eta honako hauek osatzen dute: Autonomia Erkidegoko Administrazioiko bost ordezkari, Confebaskeko (enpresaburu konfederazio adierazgarriena) bost ordezkari eta sindikatu konfederazio adierazgarrietariko beste bost ordezkari (nahiz eta bost postu horietako bat hutsik geratu den, LAB erakundeak titular bat proposatzeko eskubideari uko egin diolako).

Organo hau eratu zuen dekretuak Lan Harremanen Kontseiluan ezarri zion egoitza, haren eskumenak gauzatzeko behar dituen baliabideak Kontseiluak ematea xedatuz. Hori dela eta ematen dugu haren sorreraren eta jardueraren berri, nahiz eta lege arautzaileak ematen dizkion eskumenen artean ez egon.

Organo honen jarduna haren kideek 2014ko martxoaren 13an egindako eraketa bilkuran kargua hartu zutenean hasi zen. 2014an hitzarmen kolektiboa ez aplikatzeari buruzko desadostasuna ebazteko bi eskaera aurkeztu ziren. Horietako bat atzera bota zen aurkeztu eta zenbait egunetara, eta besteak arbitraje prozedura eragin zuen.

2015. urtean bi eskaera aurkeztu zituzten, eta 2016an bat gehiago; kasu guztietan, arbitraje laudoarekin bukatu ziren prozedurak. Bada, 2017tik erakunde honek ez du eskaerarik izapidetu, 2019an aurkeztu zen bat salbu; eta hura enpresak atzera eginda amaitu zen, bi aldeak ados jarri baitziren amaitu aurretik.

## 9. AZTERLANAK ETA ARGITALPENAK

Lan Harremanen Kontseiluak, bere lege erregulatzailan ezarritakoari jarraiki, irizpenak, ebazpenak, txostenak edo azterlanak lantzen ditu, nola eskumeneko instantzien eskaerei jarraikiz hala bere ekimenez.

### INFORMAZIO SOZIALABORALEKO PLANA

Errealitate soziolaborala aztertzeke garatzen dugun lanaren funtsezko ardatza negoziazio kolektiboa da. Aitzitik, negoziazio kolektiboari buruzko informazio hori, errealitate sozioekonomikoaren barruan kokatu eta horren aldagairik garrantzitsuenetako batzuekin lotzean aberastu egiten dela uste dugu.

Helburu horrekin, aldizkakotasun desberdineko txostenak egiten ditugu, eta guztiak ere gure webgunean kontsulta daitezke, honako helbide honetan: **TXOSTENAK ETA AZTERLANAK**.

### BI HILEAN BEHINGO INFORMAZIO SOZIALABORALA

Hala, EAEko errealitate soziolaboralaren azterketaren lehen maila bi hilean behingo «*Informazio soziolaborala*» argitalpenean jasotzen da, eta argitalpen horretan hitzarmen kolektiboen jarraipena egiten da eta urtean zehar metatutako emaitza nagusien informazioa ematen da, betiere harira datozen beste informazio soziolaboral batzuen testuinguruan eman ere.

Txosten horretan hasierako laburpen koadro bat biltzen da, baita honako alderdi hauei buruzko datuak jasotzen dituzten koadro eta grafiko jakin batzuk ere: egoera makroekonomikoa, industria jarduera, prezioak, lan-merkatua, negoziazio kolektiboa, lan-gatazkak, enplegua erregulatzeko espedienteak, eta lan-istripuak. 2023an sei txosten egin dira guztira.

## SEIHILEKOKO TXOSTENA: EKONOMIA-ETA LAN-ARLOAREN BILAKAERA EAEN

Txosten hauen helburua seihilekoan gertatutakoari buruzko ikuspegi zehatzagoa ematea da, eta haren gaineko alderdi garrantzitsuenak azaltzea.

2006. urtean hiru hilean behingo lau txosten argitaratzeari ekin zitzaion. 2018an bitara murriztu ziren, baina negoziazio kolektiboaren, enpleguaren eta kontratazioaren bilakaerari buruzko atal finkoak mantendu ziren.

Bigarren seihilekoko txostenak, «*Euskadiko Egoera Soziolaborala, Emaitzen Aurrerapena*» izenekoak, urtean gertatutakoaren ikuspegi orokor zabalagoa eskaintzen du, eta horrez gain, hurrengo urteko negoziazio kolektiboaren abiapuntuko egoeraren azterketa bat biltzen du.

## URTEKO TXOSTEN SOZIOLABORALA

Jarraipen soziolaboralerako plan hau urteko txosten soziolaboralak burutzen du. Bertan ekitaldi osoaren analisi osatuagoa egiten da, gogoeta kualitatibo xehatuagoa eskainiz. 2023. urtean, bada, 2021. urteari dagokion txostena argitaratu zuen LHK-k, honako izenburu honekin: «*EAEko Egoera Ekonomikoa eta Lan Harremanak 2022an*».

Errealitate soziolaborala aztertu eta jarraitzeko zeregin hori guztia egiteko, LHK-k askotariko estatistika informazio garrantzitsuak aztertzen ditu, eta aldagai eta adierazleen hautaketa zehatza egiten du. Gainera, bere datu base propio bat landu eta prozesatzen du, bertan biltzen duelarik EAEko negoziazio kolektiboari buruz dagoen informazio guztia, edo beste eremu batzuetan garatu arren, gure Autonomia Erkidegoan eragina duena.

## NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURA EAEN

Urte birik behin, Kontseiluak negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko informazioa eguneratzen du, hau da, EAEn ezartzen diren hitzarmen kolektiboen bilduma egiten du, eta haien eraginpeko langileak zein diren zehazten du. Azken azterlana, 2021ean zehar egin zen

2023an beste azterlan bat egin da, hitzarmen kolektiboen eragindako langileak sexuaren arabera banakatuta, Kontseiluak egiten dituen azterketetan genero-alderdia sartu ahal izateko.

Azterlana egiteko, aurreko kasuetan bezala, Gizarte Segurantzak 2023ko martxoaren 31n emandako informazioa hartu zen oinarritzat.

Lortutako emaitzekin, 2023an negoziazio kolektiboaren egitura eguneratu zen, eta aldatu egin zen, bai Kontseiluaren datu-basean, bai EAEko negoziazio kolektiboaren bilakaerari buruzko txostenetan.

## HAINBAT KONTSULTA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURARI BURUZ

2023. urtean zehar ere azterlanen zerbitzuan hainbat informazio-eskaera jaso ziren, EAEn eragina duten negoziazio kolektiboko esparruetan sartutako enpresa eta langile-kopuruari buruz, batzuetan sexuka bereizita. Mota horretako 46 kontsulta inguru egin eta erantzun ziren.

## 10. AURREKONTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

Lan Harremanen Kontseiluak autonomia ekonomiko finantzarioa du Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen barruan, eta, funtsean, aurrekontu horien kargura emandako dirulaguntzen bitartez finantzatzen du bere jarduera.

Lan Harremanen Kontseiluaren Osoko Bilkurak, 2022ko abenduaren 21eko ezohiko saioan, LHKren 2023ko ekitaldirako aurrekontua onartu zuen. Hasierako aurrekontu hori aldatu egin zen 2023ko apirilaren 7ko ohiko Osoko Bilkuran, eta VI. kapitulan sartu zen 2022ko soberakinaren zati bat. Honela geratu zen:



## AURREKONTUA 2023

<b>1. DIRU-SARRERA ARRUNTAK</b> .....		<b>2.738.709,00 €</b>
1.1. Transferentzia arruntak .....	2.738.709,00 €	
1.2. Beste diru-sarrera batzuk .....	0,00 €	
<b>2. GASTU ARRUNTAK</b> .....		<b>2.662.674,54 €</b>
2.1. Langile-gastuak .....	1.284.668,76 €	
2.2. Funtzionamendu-gastuak .....	1.378.005,78 €	
<b>3. AURREZKI GORDINA (1-2)</b> .....		<b>76.034,46 €</b>
<b>4. KAPITALAREN SARRERAK</b> .....		<b>27.290,00 €</b>
4.1. Kapital-transferentziak .....	27.290,00 €	
<b>5. KAPITAL-GASTUAK</b> .....		<b>296.378,38 €</b>
5.1. Inbertsio errealak .....	296.378,38 €	
<b>6. AHALMENA (+) BEHARRA (-) FINANTZAKETARAKO (3+4-5)</b> .....		<b>(193.053,92 €)</b>
<b>7. FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA</b> .....		<b>(500,00 €)</b>
7.1. Aktiboen aldakuntza. Sarrerak (langileen maileguen itzulketa) .....	5.500,00 €	
7.2. Aktiboen aldakuntza. Gastuak (langileei maileguak ematea) .....	6.000,00 €	
<b>8. SUPERABITA - (AURREKONTU-DEFIZITA) (6+7)</b> .....		<b>(193.553,92 €)</b>

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

<b>1. DIRU-SARRERA ARRUNTAK</b> .....		<b>2.738.709,00 €</b>
1.1. Transferentzia arruntak .....	2.738.709,00 €	
1.2. Beste diru-sarrera batzuk .....	0,00 €	
<b>2. GASTU ARRUNTAK</b> .....		<b>2.607.544,51 €</b>
2.1. Langile-gastuak .....	1.266.954,12 €	
2.2. Funtzionamendu-gastuak .....	1.340.590,39 €	
<b>3. AURREZKI GORDINA (1-2)</b> .....		<b>131.164,49 €</b>
<b>4. KAPITALAREN SARRERAK</b> .....		<b>27.290,00 €</b>
4.1. Kapital-transferentziak .....	27.290,00 €	
<b>5. KAPITAL-GASTUAK</b> .....		<b>198.048,95€</b>
5.1. Inbertsio errealak .....	198.048,95 €	
<b>6. AHALMENA (+) BEHARRA (-) FINANTZAKETARAKO (3+4-5)</b> .....		<b>39.594,46 €</b>
<b>7. FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA</b> .....		<b>2.500,00 €</b>
7.1. Aktiboen aldakuntza. Sarrerak (langileen maileguen itzulketa) .....	13.000,00 €	
7.2. Aktiboen aldakuntza. Gastuak (langileei maileguak ematea) .....	10.000,00 €	
<b>8. SUPERABITA - (AURREKONTU-DEFIZITA) (6+7)</b> .....		<b>(37.904,46 €)</b>

---

LAN  
HARREMANEN  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
RELACIONES  
LABORALES

